

(II) BI MAKILA BIDEAN-2.

Naker Mendibekoa zoan, irrintzinaka hura ere, Donazaharre (Donamartiako mindeian harat, Exkerraenean eta Burugorrienean papoaren berotzen egonik, Donianeko merkatutik heldu. Nola huts egin zuten elgar Piarrek eta Nakerok?...)

Ori, Maiderrenean Piarre sarturik, Burugorrienean Naker sartzen ari zelarik... Piarre bezala, makila ouaren jabea... Naker ohi, Salbatore gain hetan pikatu mizpira batetarik egin makila zaluaren jabea. Eta makila harek zer xixtuak, Nakeren eskuan!... Aitaren ganik ikasia harek ere bere mizpira adarraren zirurikatzen...

Egun batez —hogoi urthe zituen, orduan— kask eta kask, bigarren ukaldian berean lurrerat australiki zuen bere partida, ezpainak idekirik, odoletan. Aita han zuen, bi hurratsetan, hari beha, eta hari oihuka: "Zer zizte, ba, oraiko gazteak? Lehenago, guk, erroz gora lehen ukaldian australikitzen ginian gure gizonal!... Paulo Ezterenzubikoari galdegizok, ez denez ori egia?"

Geroztik, bigarren ukaldi guti eman zuen gure Nakerok, deuseren eta nehoren beldur ez baitzen sekulan. Eta, behin baino gehiagotan, Burdin-Kurutxetan, Irati-Sorhon gaindi, oihanetan oihan bere behien ondotik zabilalarik, zonbait zonbait otso erabili zuen bere makilaren aintzinean, Aburretako edo Larrañeko potxetan<sup>4</sup> harat, Betelemen David erregeak, erregetu aintzinean bezala! Bainan, erregetzeaz bertzerik bazuen gaur Nakerok gogoan, eta irrintzinaka bazoan beraz, Ahatsako bidean...

Eta huna non, han nonbait, Ahat-Ospitaleko kasko<sup>5</sup> hartan, entzuten duen irrintzina bat gaitza!... "Ah! baia!... Ai, ui, ui! ai, ui!" eta, zankez itzulirik, gibelerat egin zuen Nakerok, Donazaharrerat buruz...

Piarre, Maiderreneko alderat heldu zen hura ere, zaparta-ka, bertze irrintzinariaren ganat. "Ai, ui, ui! ai, ui!"

Lehenagoko mendeetan, dena oihan zelarik Eskual-Herria, nola hola elgar bilatzen ohi zuten orduko Eskualdunek, menditik mendira, bortutik bortura... Eta Ameriketako oihanetan, gauxoerlazta bat sartzen diotela hezur-munetan, lehoi, puma eta tigreak, orroaz, marrumaz, urrunetik lehenik, hurbiletik gero, bata bertzeari hola jazartzen dira, gaurko egunean oraino...

Bi gizonak, bizkitartean, elgarri buruz heldu ziren, izigarrisko oldarrean, surfuria ikaragarrian, Eskualdunen bethiko oibu lazgarria batek bertzeari zeren zion australiki, gau ilbionean:

—Ai, ui, ui!

—Ai, ui, ui!

Elgarren ganik hogoi hurratsetan ziren, eta heien makilek, xixtuka, dir dir egiten zuten. Ikaragarri zen, bainan ikaragarriagoa behar zen berehalako...

—Ai, ui, ui! ai, ui!

—Axut!<sup>6</sup>

—Haugi<sup>7</sup> bide-erdil...

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

- 1 Zer gizon da Naker
- 2 Norekin ikasi zaen Makilararen erabiltzen
- 3 Zer da: axut? Eta axukatu?

(II) ADITZ IKASKUNTZA.

31 Zabilalarik 32. Bazoan.

33. Zion australiki 34. Galdegizok.

31 IBILI - Indicatif Imparfait.

Ni mirebilan = Je marchais

Hi hundabilan = } etc.

Zu zinabiltzan = }

Hura zabilan = }

Gu zinabiltzan = }

Zuek zinabiltzaten = }

Hek zabilzan = Ils marchaient

32 JOAN Indicatif Imparfait.

Ni mendoan = J'allais

Hi hundoan = }

Zu zinooatzin = }

Hura zoan = }

Gu zinooatzin = }

Zuek zinooazten = }

Hek zoatzin = Ils allaient

33. UKAN Conj. à double complément

Indicatif Imparfait

Hari = à lui (O.S - C.I.P.)

Nik nion = Je le lui avais

Zuk zinon = Vous le lui avez

Harek zion = Ils le lui avait

Guk qinon = Nous le lui avions

Zuek zinoten = Vous le lui avez

Hiekk zioten = Ils le lui avaient